BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

4830

EBAZPENA, 2011ko urriaren 5ekoa, Lehendakaritzako idazkari nagusiarena; honen bidez, garapenerako lankidetzarako «Ignacio Ellacuría» sariaren 2011. urteko ediziorako deialdia egiten da.

Azaroaren 18ko 189/2008 Dekretuaren bitartez (2008-11-28ko EHAA, 229. zk.), «Ignacio Ellacuría» saria sortu zen, Euskadiko eta Euskaditik kanpoko erakundeek, kolektiboek eta norbanakoek herrien arteko berdintasunaren eta justiziaren aldeko borrokan eta pobrezia ezabatzeko borrokan egindako ekarpena aitortzeko, euskal gizartea eta nazioarteko gizartea sentsibilizatze aldera.

Gorago aipatutako 189/2008 Dekretuak, bere 3. artikuluan, ezartzen du saria urtero deituko da garapenerako lankidetzako sailburu eskudunaren agindu bidez, eta aginduan edizio bakoitzaren aldi baterako oinarri espezifikoak zehaztuko direla. Halaber, Dekretuaren 5. artikuluak ezartzen du saria Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak kudeatuko duela.

Hala ere, deialdia egiteko eskumenari dagokionez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu, arautu eta abiarazi ondoren (Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen ekainaren 19ko 5/2008 Legea; Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko erregelamendua onartzen duen martxoaren 23ko 95/2010 Dekretua; eta Agentziaren jarduerak abiaraztea arautzen duen azaroaren 23ko 310/2010 Dekretua), eta ikusirik Jaurlaritzaren Lehendakaritzari esleitu zaiola garapenerako lankidetzaren arloa, eta lehendakaritza horrixe atxiki zaiola Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia izeneko zuzenbide pribatuko erakunde publikoa (EAEko Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko Lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretua bigarren aldiz aldatzeko Lehendakariaren urtarrilaren 18ko 6/2011 Dekretuaren lehenengo eta bigarren artikuluak), Lehendakaritzako idazkari nagusiak egin behar du deialdi hau.

Hala ere, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariak kudeatuko du saria (azaroaren 18ko 189/2008 Dekretuaren 5. artikulua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duen ekainaren 19ko 5/2008 Legearen 11.2 artikulua; eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko Erregelamendua onartzen duen martxoaren 23ko 95/2010 Dekretuaren 11.1 artikulua.

Azkenik, adierazi behar da deialdi honek Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Artezkaritza Kontseiluaren oniritzia jaso zuela 2011ko irailaren 23an egindako bilkuran.

Bidezkoa da, beraz, 2011ko ekitaldirako sari honen deialdia egitea, aipatutako dekretuaren 3. artikuluan ezarritakoa betez.

Ondorioz, honako hau

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Deialdia.

Garapen-lankidetzarako «Ignacio Ellacuría» sariaren 2011. urteko deialdia egitea, onartu diren eta I. eranskinean agertzen diren oinarrien arabera.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ebazpen honetan eta azaroaren 18ko 189/2008 Dekretuan aurreikusita ez dagoen guztian, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aplikatuko da.

Bigarrena.– Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urriaren 5a.

Lehendakaritzako idazkari nagusia,
JOSÉ MANUEL SALINERO FEIJOO.

I. ERANSKINA

GARAPEN-LANKIDETZARAKO «IGNACIO ELLACURIA» SARIAREN 2011. URTEKO DEIALDIAREN OINARRIAK

Lehenengoa.– Xedea.

Ebazpen honen xedea honako hau da: *Garapen-lankidetzarako «Ignacio Ellacuría» saria* sortu eta arautzea, Euskadiko eta Euskaditik kanpoko erakundeek, kolektiboek eta gizabanakoek herrien arteko berdintasunaren eta justiziaren aldeko borrokan eta pobrezia ezabatzeko borrokan egindako ekarpena aitortzeko eta dagokion zabalkundea egiteko, euskal gizartea sentsibilizatze aldera.

Bigarrena.- Sariaren ezaugarriak.

Saria osatzen dute, batetik, oroitzapenezko arte-lan batek eta, bestetik, 15.500 euro gordinek. Kopuru horri, dagokion zerga-atxikipena egingo zaio.

Hirugarrena.– Sariaren jasotzaileak.

Azaroaren 18ko 189/2008 Dekretuko 2. artikuluaren arabera, hurrengo ataletan jasotzen diren baldintzetako bat betetzen duten hautagaiek izango dute saria jasotzeko aukera:

- Euskal lankidetzarekin harremanen bat duten, eta beren komunitateen garapenaren alde ekarpen esanguratsua eta nabarmena egin duten irabazi-asmorik gabeko herrialde pobretuetako toki-erakundeak.

- Irabazi-asmorik gabeko euskal erakundeen ekimenak —erakundeen partzuergo batek bultzatutakoak lehenetsita—, Hegoaldeko herrien garapenean eta/edo justizian oinarritutako nazioarteko harremanetan ekarpen esanguratsu eta nabarmena egin dutenak. Kasu honetan, ekimena sustatu duen erakundeari edo erakundeei emango zaie saria.

- Euskal jatorriko pertsona fisikoak, pobretutako herrien garapenaren alde egindako elkartasun-lanarengatik nabarmendu direnak.

- Herrien justiziaren eta garapenaren alde ekarpen esanguratsu eta nabarmena egin duten eta horregatik euskal lankidetzarako eredu gisa hartzen diren pertsona fisikoak, nazioarteko eremukoak.

Laugarrena.- Hautagaitzak aurkezteko lekua eta epea.

Eskaerak Ebazpen hau EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasi eta hamabost egun naturaleko epean aurkeztu beharko dira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako edozein modutan ala agencia@elankidetza.es helbide elektronikoan, honi erantsita aurkeztutako eredu normalizatuaren arabera (II. Eranskina), honako honi zuzenduz:

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia.
Nafarroa kalea, 2
01007 Vitoria-Gasteiz

Bosgarrena.– Epaimahaia.

Aurkeztutako hautagaitzak aztertzeko, Epaimahai bat eratuko da, honako kide hauek izango dituena:

- Presidentea: Francisco Javier López Álvarez jn., Lehendakari eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Lehendakaria.

Kargu hori hutsik badago, karguduna kanpoan edo gaixorik badago edo legeak jasotako beste zerbait gertatzen bazaio, Marta Ares Godoy and., Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendaria izango da ordezko.

- Epaimahaiko kideak:

- Eusko Jaurlaritzaren eta beste euskal erakunde batzuen hiru ordezkari: Guillermo Echenique jn., Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako idazkaria, Arantza Elizondo and., Emakundeko idazkari nagusia eta Maria del Mar Blanco and., Eusko Legebiltzarreko Garapen Lankidetzako Batzordearen lehendakaria.

- Euskadiko Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundeen Koordinakundeko lehendakaria: Ana Arriola and.

- Lankidetzaren eta garapenaren alorrean izen handia duten bi pertsona: Nerea Basterra and., Intermon Oxfam Euskadi Fundazioaren zuzendaria eta Javier Arellano jn., Deustuko Unibertsitateko garapen iraunkorra katedratikoa .

- Idazkaria: Piedad Rodríguez Barrientos and., Garapenerako Lankidetzaren Euskal Angentziaren zuzendariordea.

Epaimahai horrek deialdi honetan jasotako irizpideak kontuan hartu eta saria nori eman proposatuko dio Lehendakaritzako idazkari nagusiari.

Seigarrena.– Esleitzeko irizpideak.

1.- Esleipen-proposamena emateko hausnarketetan, epaimahaiak honako irizpide hauek aplikatuko ditu:

- Inplikaturiko komunitateen giza garapenean erakundeak, ekimenak edo pertsonak egindako ekarpenaren garrantzia.

- Erakundeak, ekimenak edo pertsonak egindako lanaren luzapena eta sendotzea.

- Erakundearen, ekimenaren edo pertsonaren sentsibilizazio-irismena euskal gizartean eta, hala badagokio, nazioarteko gizartean.

2.- Epaimahaiak irizpideak interpretatuko ditu, garapen-lankidetzarako otsailaren 22ko 1/2007 Legearen 3. artikuluan ezarritako lankidetza-politikaren orientazio-printzipioen arabera.

3.- Oro har, Epaimahaiak saria aurkeztutako hautagai bakar baten alde esleitzea proposatuko du. Hala ere, salbuespen gisa, Epaimahaiak honako hau proposatu ahal izango du:

- Saria *ex aequo* hautagai bati baino gehiagori esleitzea; Epaimahaiak hori egiteko arrazoi bereziak azaldu beharko ditu. Kasu honetan, sariaren zuzkidura ekonomikoa saritutako hautagaien artean banatuko da erdibana.

- Saria esleitzeke uztea, epaimahaiaren ustez behar adina meritu ziurtatzen dituzten hautagaiak aurkeztu ez direlako.

***Zazpigarrena*.-** Saria ematea.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak horretarako deitutako ekitaldi publiko batean emango da saria, Vitoria-Gasteizko Lehendakaritzaren egoitzan, datorren azaroaren 16an.

II. ERANSKINA

Izen-abizenak: ..... NAN ZK.: .....

Sozietatearen izena: ..... IFK: .....

Kalea eta zk.: ..... P. kod.: .....

Herria: ..... Lurralde historikoa: .....

Tel.: ..... Posta elektronikoa: .....

Goiko datuen jabe naizen honek *Garapen-lankidetzarako «Ignacio Ellacuría» sariaren* 2011ko deialdian parte hartzeko eskabide hau helarazten dut, eta ondoko hautagaitza aurkezten dut:

.....(e)n, 2011ko .....ren .....(e)(a)n.

Sinadura eta zigilua